



AGINDUA, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan xedatzen du estatu kideen betebeharra dela Europar Batasunaren finantza-interesak babestea, eta neurri egokiak hartzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko.

Bestalde, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duenak, 6. artikuluan eskatzen du iruzurraren aurkako neurrien plan bat idaztea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kudeatzen dituen erakunde bakoitzarentzat, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzen direla bermatzeko.

Gobernu Kontseiluak, 2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onesteko erabakia.

Erabaki horren bosgarren apartatuak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari eskuordetzen dio eskumen hau: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planean egin daitezkeen aldaketak onesteko eskumena».

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jarri ondoren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten dirulaguntza- eta kontratazio-prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa ezarri da, *data mining* tresna informatiko batean oinarrituta.

Gainera, kontratuetan, elektronikoki sinatu beharko dute urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren I. eranskineko interes-gatazkarik ezaren adierazpena, kontratazio-organoak eta bertan eskaintzak baloratzeko, esleipen-proposameneko eta kontratua esleitzeko faseetan parte hartzen dutenek, eta, dirulaguntzen kasuan, dirulaguntza emateko eskumena duen organoak eta eskaeren balorazioan, eskabideak baloratzeko faseetan edo ebazpen-fasean parte hartzen dutenek.

Azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Aldatzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana

Bat. Aldatu egiten da 4. apartatua («Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak»), eta honela idatzita geratzen da:

«4. Interes-gatazkak saihesteko prozesuak eta tresnak

4.1 Testuingurua

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Araudiaren 61. artikulua, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak (EBren Finantza Araudia), ezartzen du interes-gatazka (IG) dagoela "finantza-eragileek eta aurrekontua egikaritzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, zuzenean, zeharka eta modu partekatuan, bai eta kudeaketan ere, prestaketa-ekintzak barne, familiako, afektibitateko, kidetasun politiko edo nazionalako, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik beren eginkizunak modu inpartzian eta objektiboan betetzeko konprometituta daudenean".

Araudi horrek, OHFP 1030/2021en III.C Eranskinean aipatzen den bezala, honako hau ezartzen du:

- EBko Erakunde guztietako administrazio- eta eragiketa-partida guztiei eta kudeaketa-metodo guztiei aplikatu dakieke.
- Edozein interes pertsonal estaltzen du, zuzena edo zeharkakoa.
- Interes-gatazka potentzialtzat jotzen den edozein egoeratan jardun behar da.
- Agintaritzak nazionalak, edozein mailatakoek, balizko interes-gatazkak saihestu eta/edo kudeatu behar dituzte.
- Ondorio horietarako, interes-gatazkan zerikusia izan dezaketen eragileak hauek dira:
- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuk.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira, eta beren interesen alde egin badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka ere, interes-gatazka baten esparruan.

Iruzurraren kontrolaren kasuan bezala, planak modu holistikoan heltzen dio interes-gatazkari, prebentziotik arau-hausleen zuzenketa eta jazarpenera bitarteko ziklo osoa kontuan hartuta.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa, indarrean jartzen denean, plan hau aplikatu behar zaien erakundeek bete beharko dute Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin finantzatutako kontratazio- eta dirulaguntza-prozesuetako interes-gatazka kontrolatzeko ezarritako prozedura espezifikoak.

4.2 Prebentzio- eta detekzio-tresnak

Europako Batzordearen ([https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES)) eta OLAFen jarraibideei jarraituz, interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko honako tresna hauek aurreikusten dira:

INTERES GATAZKEN MODALITATEEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA INPLIKATUTAKO ALDERDIEI

Interes-gatazka potentzialean inplikaturik egon daitezkeen pertsonen interes-gatazka zer den, haren modalitateak, inplikazioak eta hori saihesteko modua ezagutzen dituztela bermatzea. Inplikaturik egon daitezkeen pertsonak hauek dira:

- Kontratazio-organoetako kideak, kontratazio publikoko zerbitzuen hornitzaileetako langileak eta kontratazio publikoko prozedura gauzatzean zuzenean inplikaturik dauden beste zerbitzu-hornitzaile batzuetako langileak.
- Kontratazio-erabakiak hartzeko ardura duten organismoetako kideak, kontratazio publikoaren prozeduran nahitaez zuzenean inplikaturik egon ez arren, emaitzan eragina izan dezaketenak.

Interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

- **Itxurazko interes-gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak bere funtzioen edo betebeharren egikaritza objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- **Interes-gatazka potentziala:** enplegatu publiko edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituztenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.

- **Interes-gatazka erreala:** langile publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta enplegatu publikoak bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialak betetzean modu bidegabean eragin dezaketen interes pertsonalak ditu. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta funtsen interes pribatuen artean, horiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.

INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

Plan hau aplikatu behar zaien sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden agintaritza eta langile guztiek, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatutako azpi proiektuen eta jarduketan kudeaketan eta gauzatzean parte hartzen badute, interes-gatazkarik ezaren adierazpena beteko dute.

Zehazki, eta OHFP 1030/2021eko III.C Eranskinean zehazten den bezala, adierazpen hau sinatu beharko dute kontratazio/diru-laguntza emateko organoaren arduradunak, lizitazio/oinarrien eta/edo deialdien agiriak idazten dituzten langileek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek. Kontratazio txikien eta baliabide propioei egindako enkarguen kasuan, espedientea proposatu edo bultzatu duen unitateko titularrak beteko du adierazpena.

Gainera, IGEA betetzea eskatuko zaie, laguntza emateko baldintzen barruan, interes-gatazka potentziala sortzen duten jarduerak egin behar dituzten onuradunei.

IGEA, adierazpen-egileak honako hau adierazi beharko du:

- ✓ Bere ezagutzan, parte hartzen duen prozedura administratiboari lotutako interes-gatazka itxurazko, potentzial edo erreal bat badago.
- ✓ Etorriz hurbilean interes-gatazka itxurazko, potentzial edo errealeko egoera batera eraman dezakeen zirkunstantziarik badago.
- ✓ Edozein interes-gatazka berehala deklaratzeko konpromisoa hartzen duela, inguruabarren batek ondorio hori ekar dezake.

Dokumentu honen **V. eranskinean**, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren (IGEA) eredia erantsi da.

INTERES-GATAZKA POSIBLEAREN PREBENTZIOARI, DETEKZIOARI, ETA KUDEAKETARI BURUZKO DOKUMENTUA

Neurrien Plan honen **VI. eranskin** gisa, interes-gatazka posiblearen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari buruzko dokumentu bat erantsi da. Bertan, langileei informazioa ematen zaie interes-gatazken modalitateei buruz, gatazka hori saihesteko moduei buruz eta gai horri buruz indarrean dagoen araudiari buruz, eta interes-

gatazkarik antzeman ez gero jarraitu beharreko prozedura jasotzen da. Dokumentu hori Plan hau aplikatzen zaien erakundeetan intranetean argitaratuko da, eta argitalpen hori erakundeko langile guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoaren bidez.

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan araututako prozeduraren arabera, agindu horren 3. artikuluan aipatutako langileek IGEDA espezifikoko bat sinatu beharko dute (Plan honen X. eranskin gisa jaso da), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin finantzatzeko dirulaguntzak eta kontratuak prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile gisa duten inpartzialtasuna bermatzeko.

DATUAK EGIAZTATZEA ETA GURUTZATZEA

Datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartuta, erakunde betearazleek merkataritza-erregistroetako, estatueta eta EBko organismoetako datu-baseak, administrazio- eta langile-espedituentzako eta datuak aztertzeko (*“data mining”*).

Kontratu eta dirulaguntzei aplikatzekoa den urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren arabera, agindu horren 4. artikuluan zehazten diren eragiketen arduradunek datuak gurutzatu beharko dituzte, agindu horren 4. artikulutik 7. artikulura xedatutakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, plan honen XI. eranskina (interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredu) eta XII. eranskina (konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduren kasuan interes-gatazkaren arriskua aztertzeko eskaerak hautatzeko arauak) gehitu dira.

ADIERAZLEEN KATALOGOA (BANDERA GORRIAK)

«Bandera gorriak» izeneko erreferentziazko adierazle-multzo baten jarraipena egitea, iruzurra dagoen zehazteko. Adierazle horiek interes-gatazka bat gertatzen ari dela ohartarazteko balio dute, berehala erreakzionatzea eskatzen dutenak, ekintzaren bat egitea beharrezkoa den egiaztatzeko.

Iruzurra detektatzeko erabiltzen den katalogo berak (IV. eranskina) interes-gatazka motak detektatzeko adierazleak ere baditu. Adierazle horiek OLAFen arlo horretako gida praktikoarekin lerrokatuta daude.

ETENGABEKO ETA ALDIZKAKO EBALUAZIOA

Adierazleetan oinarrituta, etengabeko monitorizazioa egingo da, interes-gatazka posibleak goiz detektatzeko eta saihesteko.

- Langileek aldizka galdesortak betetzea, interes-gatazkan sartzeko aukerari buruz adi dauden ebaluatzeko.
- Kontrol-zerrendak egitea, erabakiak hartzen parte hartzen duten eta, beraz, interes-gatazkan sar daitezkeen langileek beteko dituztenak.

4.3.- Zuzenketa-tresnak

Interes-gatazka zuzentzeko tresnen helburua inplikaturako pertsona zigortzea eta/edo interes-gatazkak eragindako edozein gaitz konpontzea da. Interes-gatazkak saihesteko tresnak honako hauek dira:

EX POST EGIAZTAPEN-KONTROLAK

Erakunde betearazleek, interes-gatazkarik egon den egiaztatuko dute, interes-gatazkak prebenitzeko erabilitako kontrol-zerrendak baliatuta. Ebaluazioak betetzeko erabiliko diren ex post mekanismoak IGEAn zentratzen dira, eta hori beste informazio mota baten argitan aztertu beharko da IG-ko egoerak egiaztatu behar direnean.

Interes-gatazka izaera penalekoa bada, agintaritzak, gainera, estatuko legeriarekin bat etorriz, salaketa judiziala egin beharko du, kasuaren ondoriozko administrazio-alderdiak gainbegiratu eta egoeraren arriskuen azterketa egin beharko du.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, IGAerekin lankidetzan (III. maila), berariazko auditoriak egin ahal izango ditu interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden ikusteko.

KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Interes-gatazka bat egon daitekeela uste denean, eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta kasuan kasuko zerbitzu juridikoek txosten bat egingo dute kasua instantzia judizialetara eramateko erabakia babesteko, baldin eta IG izaera penalekoa bada.

Gainera, gertatutakoaren berri emango da, erabakien gardentasuna bermatzeko eta antzeko egoeretan disuasio-elementu gisa balio dezan.

JARDUERA BERRIKUSTEA, GELDIARAZTEA, ETA/EDO ETETEA

Interes-gatazka eragin dezakeen arrazoiren bat duten agintaritzek eta langileek ez dute esku hartuko eragindako prozeduretan.

Interes-gatazkak onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontratistei ere eragingo die, baldin eta haien jarduerak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoetako finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

Erakunde betearazleek interes-gatazkak eragindako jarduera oro utziko dute, eta eragindako kontratua/jarduera ezeztatuko dute, eta kontratazio publikoaren prozeduraren zatia errepikatu beharko dute.

Gainera, interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-araudien araberrako neurriak hartuko dira (diziplina- edo

administrazio-zehapenak eta/edo diziiplina-espedientea irekitzea)».

Bi. X eranskina gehitzen da, titulu eta eduki honekin:

«X. ERANSKINA – Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena gutxieneko edukia

Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena gutxieneko edukia honako hau da:

Espedientea:

Kontratazioa/dirulaguntza.

Goian aipatutako kontratazio-/dirulaguntza-prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte denez/direnez, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa.

Jakinak ditut honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») honakoa ezartzen du: «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zuen, Espainiako ordenamendu juridikora egokitze. Lege horren 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») honela definitzen du interes-gatazka: «Kontratazio-organoaren zerbitzura dauden langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen dutenek edo prozeduraren emaitzan eragina izan dezaketenek, zuzenean edo zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izatea, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeena».

3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».

4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:

«Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa badago».

«Erlazioak edo loturak identifikatzeko aldera, tresna horrek, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) .iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen benetako titulartasuneko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Bigarrena.

Adierazpen hau sinatu dudanean, eta eskura dudan informazioaren arabera, ez nago interes-gatazkatzat jo daitekeen ezin egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrenkoa.

Konpromisoa hartu dut kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, baldin egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arazoiren berri badaki, prozeduraren edozein unetan.

Laugarrenkoa.

Badakit Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diedala.

Hiru. XI eranskina gehitzen da, titulu eta eduki honekin:

«XI ERANSKINA- Interes Gatazkarik Eza egiaztatzekeo eredua

Espedientea:

Kontratazioa/dirulaguntza.

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, agindu horrek baititu araututa Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu. Agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen. Bada, arriskua aztertu ondoren,

bandera gorri bat detektatu denez (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrazki duten eskatzaileen zerrrenda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketara objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.

Lau. XII eranskina gehitzen da, titulu eta eduki honekin:

«XII ERANSKINA - Konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertzeke hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak

Konkurrentzia masiboko dirulaguntzen kasuan (ehun eskabide baino gehiago), interes-gatazka izateko arriskurik baden jakiteko azterketa honela egingo da, oinarri arautzaileen aginduak edo dirulaguntzak emateko deialdi zehatzak ezartzen dutenetik abiatuta:

A) Ez dago aukerarik azkenean emandako dirulaguntza bakar bat ere 10.000 eurotik gorakoa izateko. Kasu horretan, eragiketaren organo arduradunak bi aukera izango ditu: eskatzaile guztientzako interes-gatazkaren arriskuaren analisisa aplikatzea, edo ehun eskaera hautatzea, haiek denak egiaztatzeke, honela:

1. Eskabide guztiak sarrera-egunaren eta -orduaren arabera ordenatuko dira.
2. Eskabide kopuru osoa 100ez zatituko da egiaztatu beharreko eskabideen hautaketa zehaztuko duen tarteen heina lortzeke, eta emaitza zenbaki oso txikiagora biribilduko da, dezimalik egonez gero.
3. Lehenengo eskaera hautatuko da, eta, ondoren, lortutako tarte-heina ondoz ondo batzearen ondorioz ateratako ordena betetzen duten eskaerak, ehun eskaeretara hautatu arte. Eragiketaren arduradunak hautatutako eskatzaileei buruzko auditoretzaz-pista mantendu beharko du egiaztapena egiteke, eta behar bezala dokumentatu beharko du hautaketa hori egiteke jarraitu den prozesua.

Sistemaren aplikazioa errazte aldera, hona hemen adibidea: demagun 3.532 eskaera aurkeztu zirela, ba zenbaki hori 100ez zatitu beharko dugu. 35,32 da emaitza. Emaitza ez denez zenbaki osoa, beheko zenbaki osora biribilduko litzateke, kasu honetan 35. Hala, honako eskaera hauek hautatuko dira: 1. eskaera, 36. eskaera, 71. eskaera eta 106. eskaera, hurrenez hurren, 100 eskaera hautatu arte.

B) Gerta liteke deialdi jakin baten kargura azkenean emandako dirulaguntzen bat 10.000 eurotik gorakoa izatea: kasu horretan, eskaeren % 100 aztertuko da, eskaera bakoitzari azkenean emango zaion zenbatekoa edozein dela ere.

Bost. «Arriskuak puntuatzeko tresna»ri (ARACHNE) buruzko aipamen guztiak ezabatu dira.

Sei. Aldatu egiten da «Edukien aurkibidearen» «9. eranskina», eta honela geratzen da idatzita:

«9.- Eranskinak

9.1. I. eranskina - Iruzurraren aurkako borrokaren adierazpen instituzionala

9.2. II. eranskina - Arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta probabilitatea

9.3. III. eranskina.- Etika eta jokabide kodea

9.4. IV. eranskina - Adierazleen katalogoa (bandera gorriak).

9.5. V. eranskina - Interes Gatazkarik Ez Dagoelako Adierazpena (IGEDA)

9.6. VI. eranskina - Balizko interes-gatazka prebenitu, detektatu eta kudeatzeko dokumentua

9.7. VII. eranskina - Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarria den ikusteko eta finantzaketa bikoitza saihesteko testa

9.8. VIII. eranskina.- Kudeaketa-aitorpena ordainketa-eskaeran

9.9. IX. eranskina.- Kalte Nabarmenik Ez Egiteko Printzipioaren Autoebaluazioa – DNSH

9.10. X. eranskina - Interes-gatazkarik Ez Dagoelako Adierazpenaren gutxieneko edukia

9.11. Interes-gatazkarik ez dagoela egiaztatzeko eredu

9.12. XII eranskina - Konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan, interes-gatazkaren arriskua aztertzeke hartuko diren eskaerak hautatzeko arauak

9.13. Termino eta definizio nagusien glosarioa».

Bigarrena. Agintzea aldaketa hori sar dadila aipatutako planaren dokumentuan, zeina argitaratuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren eta datu-bistaratzeeen atarian (<https://www.gardena.euskadi.eus>) eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren web-orrian (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/ogasan-saila/>).

PEDRO MARIA AZPIAZU URIARTE
EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUA